



ONDARROAKO UDALA

2016/726 DEKRETUA

Exp.zkia.: O/1211

Gaia: Kamiñaldeko mendi-hegala egonkortzeko obraren ordainsari teknikoak. Ustekabekoak 2016 delako dirulaguntzaren onarpena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 215/2015 Foru Dekretua argitaratu zen, 2016 urtean Udal Finantzaketarako Foru Funtzean (Udalkutxa) ustekabeko gertaeratarako dauden transferentziak emateko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako sailean Alkatearen idatzi baten bidez 2016ko maiatzaren 12ean egindako lehen dirulaguntzaren eskaerari aldaketa desberdinak eginda behin betiko dirulaguntza eskaera 2016ko ekainaren 6an egin zen **"Kamiñaldeko mendi-hegala egonkortzeko obraren ordainsari teknikoak"**.

Ondarroako udaletxeko sarreran 2016ko uztailaren 13an Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko uztailaren 1eko 5738/2016 Foru Agindua jaso da, horren arabera Ondarroako Udalari 500.000,00 €ko dirulaguntza dagokion.

Aurreko guztia kontutan hartuta hauxe erabaki dut:

Lehena.- Bizkaiko Foru Aldundiko 500.000,00 €ko dirulaguntza onartzea.

Bigarrena.- Ondarroako Udaleko Web orri ofizialean dirulaguntza jaso denaren publizitatea egitea.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri Bizkaiko Foru Aldundiari eta Udal kontuhartzaileari ematea.

Ondarroa, 2016ko uztailaren 15ean

Alkatea
Zunbeltz Bedialauneta

